




maitasunak mozolo-aurpegia du

MAITANE NEREKAN UMARAN



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MAITANE NEREKAN UMARAN

Maitasunak mozolo-aurpegia du

VILLABONA-AMASA

HITZAURRE-FIKZIOA:

LAGUN BATEK ERAMAN NAU kontakizun hau horrela hasiera. Maite nauen lagun batek, maite dudak lagun batek. Maite gaituzten lagunak gure maitaleak al dira? Horrela bada, maitale batek eraman nau kontakizun hau horrela hasiera.

Inoiz pentsatu al duzu zergatik deitzen zaren deitzen zaren moduan? Nik ez, orain dela gutxira arte; amak garrantzi gabeko elkarriketa batean bota zuen arte. Lau ahizpetan gazteena naiz. Badirudi, inork ez ninduela deitu mundura etor nendin. Abisatu gabe etorri nintzen. Gurasoak jada ez ziren *bikote*, noizbait *bikote* izan baziren. Etxe berean bai, familia berean bai, *bikote* berean ez. Azken azal-jolasa (edo kolpea) izan omen nintzen. Ez ditut sekula gurasoak bikotetuta ezagutu. Senar-emazte bai, baina ez *bikote*.

Ahizpek bi urteko aldea dute beraien artean, nik bost nire aurrekoarekin. Amak pentsatu omen zuen nabarmenegia nintzela, deitu gabe agertzen den horietakoa. Ni baino bost urte zaharragoa den ahizpak Amaia du izena, berarekin amaitzen zelako alaben bidea. Bost urtera ni. Aitak dio, gainera, amak mutil nahiago ninduela eta neska munduratu ninduten. Agian aitaren asmakizuna baino ez da hori, ez dakit. Hala ere, horregatik guztiagatik, Maitane. Maiteena (amak ez zuen Maitena nahi, gipuzkoarregia omen zen). *Nerea* pentsatu zuen hasieran, baina aitaren abizenarekin batera ez zen ahoskatzen erraza. Amaren lau alabok, aitaren abizena baitugu berea baino lehen. Beraz, Maitane. Gurasoek maiteko nindutenaren gogorazpena izenean bertan. Ziur naiz, amak hau irakurri eta ulertuko balu, istorioa ez zela honela esango lukeela. Ziur arrazoiak duela, guraso eta seme-alaben arteko harien epika-egarriak, fikzio txikiak egitera eramaten baikaitu maiz.

Ez dut inoiz sentitu gurasoek maite izan ez nautenik. Are gehiago, beti sentitu dut gurasoek ondo maite nautela, nahiz eta zenbait gauza gaizki egin dituztela ere uste dudak. Gurasoek ahal duguna egiten baitugu gehiegitan. Ahal duguna, ez ondo dagoena. Hala ere, Maitasunaren inguruko zalantzek zeharkatuta naukate gazte-gaztetatik; agian umetatik ere bai, baina umetako oroitzapen gutxi ditut; psikologo batek behin esandakoaren arabera, gutxiegi.

Zenbat du maitasunak beharretik eta zenbat desiratik? Zenbat du ahaleginetik eta zenbat errazkeriatik? Zenbat lehen alditik eta zenbat errepikapenetik? Zenbat du uzker erreprimetutik

eta zenbat askatasunez botatako uzker usaintsutik? Zenbat epika egin dugu maitasunaz? Gehiegi? Gutxiegi? Filosofiak ere, maitasuna du bere izenean bertan; neuk bezala. Agian, horregatik aukeratu nuen ofizio. Jakintzarekiko maitasuna dela azaltzen diet ikasleei ikasturte hasiera guztietan. Grekeraz, *Filos* maitasuna da eta *Sophia* jakinduria. Maitasunaz zerbait badakit, gizaki guztiek bezala, suposatzen dut. Sofiarik ez dut ezagutzen (Espainiako erregina ohia kenduta, baina antimonarkikoa izatea oinarrizko printzipio moralizat dut).

Sekretu fikzionatu gehiegi dakartza hitzaurre honek. Has dadila sekreturik gabeko fikzioa.

Irakurriko duzuna Amasa-Villabonan idatzi nuen, Errebote plazatik hurbil, Aljibe musika-aretoaren herrian, Aralarko San Migel Santutegiko ateak Villabonan lo egin zuenean, Amasan ilargi betea eta izar iheskorra ikusi nituen osteko gau eta egunetan; aurretik Eñaut komikigilearena eta Maitane idazlearena izan zen egongela berean (ka(u)salitatea); euskaraz soilik idatzita zegoen isuna jaso nuen herrian; leihoetan Palestinako banderek oihu egiten zutenean, haize-erroten inguruko eztabaidak astoak herrira ekarri zituen garaian. Ondokoa izango du pizgarri: Amasa-Villabonan, Plentzian, Baigorri ala Gazan berdin maitatzen ote dugun. Zein forma duen maitasunak kostaldean, eta zein barnealdean. Nor, zer eta nola maite dugun kalekumeok eta baserritarrok. Gure herriko garraio-sare publikoak zein pisu duen maitasunaren algoritmoan.

Irakurriko duzuna ez da ipuina izango, ez eleberria, ezta filosofia saiakera ere. Baina izango du ipuinetik, eleberritik eta saiakeratik. Galdera asko izango ditu, erantzun bat bera ere ez. Galderak ez dira soilik nireak, Garazik, Markelek, Anerrek, Iñigok, Karmelek, Imanolek, Itsaslorek, Aisak, Oinatzek, Adurrek, Alaitzek, Unaik, Junek, Itsasok... beraiek jaurti dituzte airera eta airean erantzunak harrapatzera jolastu. Has dadila jolasa!

FIKZIOA I:

Maitasunak UZKER-USAINA du

HERRIKO PLAZA. Lau lagun. Garagardoak, ardo zuriak eta rooibos infusioak mahaian.

—Zelan egon zara zure maitasunaren sektan?

—Ondo. Sektetan beti ondo.

—Azal diezagukezu tesi garrantzitsu berria orduan, filosofo anderea?

—Maitasunak uzker-usaina du.

—Ostia! Niri orduan yoga-klaseetan maitasunak gainezka egiten dit.

—Bai, ba! Niri ere bai pilatesean. Norbaitek tesi hori landu beharko luke: yogak eta pilatesak uzker-usaina dute.

—Edo zarata; niri behintzat, yogan eskapatzen zaizkidan uzkerak usain bakoak dira, soilik zaratatsuak.

—Yoga-irakasleak maitasuna aipatzen duen bakoitzean galdetu nahiko nioke zertaz ari den; mesedez, zehaztasunez deskriba dezala zein den yogaren maitasuna, non dagoen, non sentitzen den eta ea min eman dezakeen. Edo buruz beherako postura konplikatu horietan, tentsio-uzkerrik ez eskapatzeko balio ote duen: goldea, kandela eta uzkerak. Ederto batean!

—Aurrekoan, irratsaio batean entzun nuen, pertsona beltzek ez dutela maitasunaz zuriek beste hitz egin historikoki beraien diskurtso politikoetan. Uste dut bell hooksek esan zuela, iraultzaile beltzek ez dutela maitasuna aipatzen beraien diskurtsoetan.

—Eta zuriek bai?

—Ez dakit. Zein da lelo iraultzaileagoa, *Maite zaituztegu!* ala *Borroka da bide bakarra?*

Elkarriketak aurrera egin du sekten, uzkerren, txikien “ama, emango didazu euro bat?” galderen eta zurito eskarien artean. Iluntzean etxerako bidea hartu dute lau lagunek. Alabaren eskutik helduta bata, telefonoz bestaldekoari audioa bidaliz bestea, bakarrik hirugarrena, bikotearekin azkena.

Etxera heldu dira denak. Arropak erantzi dituzte, bik beste norbaitenak ere bai. Gosea sentitu dute hiruk, baina bik besterik ez dute ganoraz afaldu; batek beste infusio bat hartu du, besterik ez. Beste batek gazta eta york rollito pare bat sartu ditu ahora eta kito. Lautik batek, ez ditu

hortzak garbitu ohera sartu aurretik. Bik serie bana jarri dute lo hartzeko, *Vidas perfectas* bata, *Los años nuevos* besteak. Hirugarrenak liburua hartu du, Miren Amurizaren azkena. Laugarrenari gehiegi luzatu zaizkio ohera joan aurreko eginbeharrak: garbigailuko arropa eseki, falta zaizkion bost azterketak zuzendu, lurrekoak batu... ohera sartu denean aktibatuegi dagoela konturatu da. Ohean, aldamenean duena esnatzeko beldurrez masturbatu da, horrek lasaituko duelakoan. Laurak une berean hartu ditu loak, nahiz eta beraiek ez duten jakin.

Laurak esnatu dira goizaldean, 03:55ean. Batak ordua begiratu du mesanotxean dagoen telefonoan. Saiatu da berriro lo hartzen, baina ez du berehala lortu. Mugikorra hartu du eta bilatzailean *“cómo inseminarse en casa”* bilatu du. Gero *“bancos de esperma voluntarios”*, *“maternidad a los 40”*, *“asociación de madres solteras”* eta beste hamarnaka. Bilaketa guztiak gaztelaniaz egin ditu. Horretan zebilela, alabaren *“amaaaaa!!!”* oihuak asaldatu eta alabaren ohean sartu da. Bertan hartu du loak.

Bigarrenak, buruan kalkuluak egin ditu, 23:00ak inguruan loak hartu badu eta 04:00etan esnatu... bost ordu lo egin dituela ondorioztatu du, eta hori nahikoa izan daitekeela biharkoari aurre egiteko. Biharkoari.

Hirugarrena txiza egitera jaiki da eta izara artean sartu da ostera be. Hala ere ez da lokartu eta ordenagailua hartu du lurretik. Bosgarren kapitulua ikusten ari dela hartu du loak, justu sexu-eszena batek kitzikatuta hankartea laztantzen.

Azkena, izan berri duen ametsari bueltaka ibili da minutu batzuetan eta buruan erreproduzitu du behin eta berriz zentzua bilatu nahian. Argia piztu eta bere mandala-koadernoan idaztea erabaki du. Ametsa koadernoan idatzi ostean loak hartu du. Laurak une berean hartu ditu loak, nahiz eta beraiek ez duten jakin.

Biharamunean, lau lagunak ez dira ordu berean esnatu. Bi mugikorraren zaratarekin esnatu dira, nahiz eta horietako batek alarma sei aldiz itzali duen altxatu aurretik. Bat mugikorra gela barruan ez izateko erosi berri duen despertadoreak esnatu du. Laugarrena txiza egitera jaiki eta ohean sartu da ostera be leihoak parez pare zabaldu ostean.

Lehen hirurek, kafeak, infusioak, aguakate tostadak, olo eta fruta nahasketak eta Príncipe galletak gosaldutako edo prestatu dituzte. Horietako batek, lanerako gauzeekin gosaria poltsan sartzeko astia besterik ez du izan. Igogailuan jaitsi da kalera bat. Beste bik eskailerak erabili

dituzte. Kotxea hartu du lanerako batek. Besteak, oinez egin du lanerako bidea. Hirugarrenak, bide erdian ikasleei eman beharreko azterketak ahaztu dituela gogoratu eta etxera bueltatu behar izan du.

Azkenak ez du gosaldu, izara arteko tartea ohi baino gehiago luzatu du leihotik ikusten duen zuhaitz zaharrari begira. Ez du oraindino kimatu; baserriko lanek gainezka egiten diote azken boladan, beste nonbait baitu gogoa, irrika. Lehenik, gogora etorri zaio, kuadrillan ohikoa duten bizitzako plazeren Top10 zerrendaren elkarriketa eta, pentsatu du, horretara bueltatzen diren hurrengoan, goizean ohean etzanda leihotik begira egotea aipatuko duela. Ondoren, aurreko batean, gauez, Aranerrekatik paseoan zebilela ikusi zuen mozoloa etorri zaio burura. Pareko zuhaitzera mugitu eta kumetxoa zelan deitzen zuen, habia-zulotik lasai irten zitezen hegan egitera. Eta pentsatu du maitasuna ez al den hori, maite duzun hori hegan egiten aske ikusteko gogoa. Bestearen hegaldiak zureak besteko ilusioa piztea. Mugikorra hartu du burukoaren azpitik. Bilatu du, baita aurkitu ere: “Mozolo europarra, *Athene noctua*. Mozoloek etxe iraunkorra dute, eta egunean behin baino gehiagotan itzultzen dira hara. [...] Bikoteka ikus daitezke. [...] Sinbologian jakinduriaren jainkosa Atenearekin lotura dute. Horregatik, filosofiaren sinbolotzat hartzen dira”. Irribarretxoa atera zaio pentsatu duenean, euskaraz, mozolo-aurpegia tonto-aurpegia dela. Ezjakinarena. Maiteminduearena.

HAUSNARREAN I:

NON DAGO MAITASUNA GURE HERRIETAN? Plazan, txosnetan, udaletxean, doako aparkalekua duten kaleetan? Non dago gure egunerokoan? Zein da aproposagoa maitasunerako, gosari, bazkari edo afariko tartea? Kuadrilla-afaria edo familia-bazkaria? Maita daitezke Herriak pertsonak beste? Maita daitezke oroitzapenak? Maitemin gaitezke oroitzapenekin? Zein harreman dute maitemintzeak eta maitasunak? Euskarazko *maite zaitut* eta gaztelaniazko *te amo*, gauza bera dira? Eta frantseseko *je t'aime*? Hizkuntzak ba al du eraginik gure maitatzeko eran? Eta baldin badu, zertan? Zenbat pertsona maitatzeko gaitasuna du gorputz batek? Eta zenbat gorputz maitatzeko pertsona batek? Zerekin maitatzen dugu gehiago, gorputzarekin ala arrazoiarekin? Hau da, zenbat du maitasunak gorputzetik, zenbat arrazoimenetik eta zenbat... txokolatezko izozkitik? Maitasuna airean dago? Eta airean badago... Muskizen maitasuna Urduñan baino kutsatuago dago? Villabonako paper-fabrikak maitasuna kutsa dezake? Ala maitasuna errazagoa da lanpostu duinak sortzen dituzten lantegiak dauden tokietan? Zenbat du maitasunak jarrera inkontzientetik eta zenbat erabakitik? Maitasuna neur daiteke?

Amasa-Villabonako ikastetxe bateko ikasle batek horrela erantzun zion azken galdera honi: jasotzen den maitasuna bai, neur daiteke; ematen dena, aldiz, ez. Herri berean ezagutu nuen Ibarrako plazarekin maitemindu zen villabonatarra; baita Azpeitiarekin maitemindu zen hura ere. Sukaldean hobeto maitatzen dela pentsatzen zuen batekin solastu nintzen. Batek, norbait ONDO maite duzula jakiteko formula, psikiatra batek emandakoa dela esan zidan. Hiru galdera besterik ez direla egin behar: ea nire onena ateratzen duen, ea miresten dudana eta ea on egiten didan. Horra hor maitale onena identifikatzeko formula magikoa! Besteak azaldu zidan, maitasuna pazientziatik bizitzen ikasi duela, ez intentsitatetik; oraindik ez omen zekien horrek zoriontsuago egiten zuen, baina lasaiago bizi omen zen, hobeto. Gazte batek azaldu zidan, baserriko abereek zutela bera maiteminduta. Ez gizabereek, ez, baizik eta behiek, zaldiek, txerriek... baita inguruko piztiaren batek ere.

FIKZIOA II:

Maiteminduek MOZOLO-AURPEGIA dute

MOZOLO-KUMEAK EZ DU HABIA UTZI NAHI. Bere begi handiekin habiaren ertz gainetik begiratu eta handiegi egin zaio mundua, infinitua. Urrunegi dago mozolo-ama, handiegia da banatzen dituen distantzia. Amaren deia entzuten du bestaldetik:

—Seinetxu, etor zaitez! Trankil, ez da ezer gertatuko.

—Eta erortzen banaiz? Eta nire hegalek ez badute zureek beste indar?

—Zaude lasai. Ez dut mozolorik ezagutu habiatik irten ezinik bizi izan denik.

—Ama, zuk beldurra izan zenuen habiatik atera zinenean?

—Ez dut gogoratzen, aspaldi izan zen hori.

—Ama, zuk beldurrik izan duzu inoiz?

Amak ez du erantzun, nahiz eta erantzuna lumen artean izan. Gogoratu du Erreka bailaran behin bizitako hura, ume deitzen omen duten gizaki txiki horietako batek esku artean harrapatu zueneko hura. Gogoratu du begietara zelan begiratu zion, lumak zelan ukitu zizkion eta gizaki ahotsez zelan abestu. “Txori txikia nintzelarik esan zidaten kaiolan bizitzeko sortua nintzela [...] horregatik iriki zizkidaten ateak egin nezan hegan” Beldurrak jota zegoen, dardarak zeharkatu zion bere mozolo-gorputz zaurgarria. Umeak estuegi heltzen zion, baina, horretaz gain, abestu besterik ez zion egin. Kantarekin amaitutakoan, airera jaurti zuen. Agian bortitzegi jaurti ere, baina gizakiak, txoriak airera zelan bota jakin gabe jaiotzen direla pentsatu zuen garai hartan.

—Ama, eta hegaletik helduta egiten badugu proba lehenengo?

—Seinetxu, ezin da hegan egin hegaletik helduta.

—Ama, bakarrik ez dakit gai izango naizen.

—Izango ez zara, bada. Ez dago hegan egin ez duen mozolorik.

—Hori ez da egia. Aititak esan zidan “zizareak” ondo jaten ez dituztenak erori egiten direla, behin habiatik aterata. Nik ez ditut beti jan zuk emandako zizare guztiak...

—Ez, ala?! Dena den, aititak esandakoei ez zaie beti kasu egin behar.

Horrela jarraitu dute ama-kumeek bata besteari beldurrak aitortu eta beldurrak uxatu nahian.

Ausartu da behingoz mozolo txikia, eta salto dardartiz atzean utzi du habia. Amak iragarri bezala, erraz zabaldu ditu hegala eta gora eta behera ibili da, txoriak diren ingeniariarik gabeko ingeniaritza-lan eder horren gaitasunak probatzen. Habiara bueltatu dira ama-kumeak azken gauez; izan ere, behin habiatik aterata, egun bat besterik ez dute behar izaten mozoloek amarekiko zilbor-hestea eteteko.

Hurrengo gauarekin heldu zaio bere lehen hegaldi askea. Tarteka, zuhaitz-adar batean jarri denean, amaren ulua entzun du urrunean eta pentsatu du are ederragoa dela amaren ulua urrunetik entzuten denean. Irribarrea ere agertu zaio bere mokoan, pentsatuz atzo beldurra zena, gaur plazera dela. Gau osoa eman du hemendik hara hegan, airean jolasean, goizaldeko argi gorriaren argiaren ostean hegaldia luzatuta ere.

Ikusi ditu gizakiak gauean dantzan musikaren erritmoan. Ikusi ditu gizakiak korrika, zeren beldur diren ulertu ez badu ere. Ikusi ditu leihoetan zintzilik dauden oihal zati gorri, beltz, zuri eta berdeak; baita oihal gezidunak ere. Ikusi ditu elkarren artean estu-estu egindako gizaki pareak. Txakurrak elkar miazkatuz, gizakiek heldutako soketatik tiraka. Azal iluneko gizakiak eta azal argikoak; biak ikusi ditu. Baita ahoak elkartzen zituzten gizaki pareak ere. Bitxi egin zaizkion adar luzeko zuhaitz zuri erraldoiak. Ikusi ditu umeak elkarrekin plazan jolasten. Aparatu bat belarritik hurbil-hurbil jarrita bakarrik solasten ziren gizakiak ere ikusi ditu. Eta edalontzi bana eskutan pozik ziruditen gizaki multzoak.

Entzun ditu oilarren goizaldeko kukurrukuak. Gizakumeak negarrez eta amen ahotsak hauek lasaitu nahian. Astoak binaka arrantzaka. Entzun ditu abesti zaratatsuak. Uzker burrunbatsuak. Robotak diruditen kamioien orroak. Gizaki taldeen barre-algarak. Kanpai-hotsak. Haize-ufadak. Entzun ditu gizakiak, belarrian jarritako aparatuari “gabon, maitia” esanez. Entzun ditu gizaki bi elkarri oihuka. Ehiztariarenak iruditu zaizkion urruneko tiro-hotsak. Ardiak balaka. Musu zaratatsuak. Eztanda bortitza. Beste txorien kantuak, bata besteari deika, bikotetu nahian.

Hainbeste entzun eta ikusi ondoren, habiara bueltatzeko ordua dela sentitu du mozoloak. Baina jada, ez du habiarik. Jada, ez du lekuri bart atzean utzitako horretan. Ez du penarik sentitu, habia berri baten bila joateko ilusioa baizik.

Gaueko bidaian ikusitako zuhaitz zuri erraldoiak etorri zaizkio gogora. Adarrak zelan mugitzen ziren, buelta-bueltaka; jada geldirik egongo dira, haizerik ez dabilelako, pentsatu du. Adar sendoak, habia egonkorretarako aukera ematen duten horietakoak.

Hara abiatu da, hegoak gora eta behera astinduz, hegaldia gozatuz. Bere mozolo-begi biribilak ere itxi egin ditu, haizearen laztanak luma artean sakonago sentitzeko. Sentitu du zein ederra den begiak itxita hegan egitea.

Bat-batean heldu zaio kolpe bortitza, norabide aldaketa kontrolaezina, sorgin-haizea. Indar ikaragarritz erakarri du ordura arte zuhaitza zirudien errota zuriak, munstro hegaldunak. Hurbilegi egon da begiak zabaltu ditueneko. Ez du astirik izan pentsatzeko, erreakzionatzeko. Ezin izan du hegaldiaren norantza aldatu. Ezin errota zuriaren adarretatik ihes egin. Ezin haizea gelditu. Ezin.

HAUSNARREAN II:

ZEIN HARREMAN DUTE askatasunak eta maitasunak? Eta maitasunak eta justiziak? Guraso guztiek maite dituzte beraien seme-alabak? Seme-alaba bat baino gehiago dugunean, denak berdin maite ditugu? Berezkoa da gurasoekiko maitasuna, ala ikasia? Eta seme-alabekikoa? Maita ditzakegu beste baten gurasoak gureak baino gehiago? Eta beste baten seme-alabak? Zenbat du fikziotik eta zenbat errealitatetik familiarekiko maitasunak? Zenbat kulturatik eta zenbat biologiatik? Odoleko familiak elkarrekin mantentzen dituenak badu zerikusirik maitasunarekin? Maitasuna dosifikatzea osasuntsuagoa al da? Medikamentu eta drogekin bezala, maitasun mikrodosiak kontsumi daitezke? Zer egin dezakegu maitasunarekin, sentitu? Egin? Kontsumitu? Bizi?

Zein harreman dute maitasunak eta heriotzak? Pertsona edo animalia bat hiltzen denean amaitu egiten da berarekiko maitasuna? Biderkatu egiten da? Eta hildakoen maitasuna, hil direnen maitasunak bizirik dirau? Maite ditugu pertsonak, animaliak... ala horiekin izandako bizipenak?

Behin, borrokan katramilatutako ikasle bi banatu eta gero, horrela oihukatu zidan, D ereduko gaztelania jatorrean, amorruek jota zegoen ikasle horietako batek: “A mí solo me pega mi padre”. Nik, esandakoa astakeria hutsa zela adierazita, horrela erantzun zidan berriz ere bueltan. “Egia da, Maitane. Mi padre me puede pegar porque me quiere, pero nadie más.” Institutuko ikasgela barruan unibertsitatean baino gehiago ikas daiteke antropologiaz eta filosofiaz, nire eskarmentutik, behintzat. Zein ideia du euskal gazteriak familia-maitasunaz? Bat al datoz gure abestiak aldarrikatzen hasi diren “aske maite, aske bizi” maitasun deserromantizatuak eta familiarako errepikatzen jarraitzen dugun “nire aitaren (edo amaren, berdin dit kasu honetan) etxea defendatuko dut”? Nola bila daiteke familia-maitasun aske eta gozagarria? *Bi kate* dira moztu beharrekoak ala gehiago? Non dago familia-maitasunaren muga? Zenbat du familiak babes habiatik eta zenbat kartzelatik?

Maitasun erromantikoa deseraikitzeke tailerretan asko hitz egiten da bikoteez eta gutxi familiaz. Zelan deserromantizatu familia, amarauna sostengu izan dadin eta ez korapilo? Berdina al da familia-maitasuna Zigan, Sestaon eta Urizaharran? Berdina *trenak ekarritakoentzat*, bertan jaio, hazi eta hil egingo direnentzat eta Melilla zeharkatuz etorrikakoentzat? Zenbat dugu elkarrengandik ikasteko?

FIKZIOA III:

Maitasunak EZTANDA egin dezake

BAT:

BERANDU HELTZEKO BELDURREZ autopista hartu du lanetik bueltan, baita bidesaria kreditu-txartelarekin ordaindu ere. Ez egitekoen zerrendan zegoela badaki, baina urduri dago eta garaiz heltzea garrantzitsuagoa dela pentsatu du; ez da ezer gertatuko. Kotxea aparkatu aurreko azken abestia Gorka Urbizurena, *Teoria bat*: “Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude”. Ez duela gehiago itxarongo pentsatu du, ez du inor behar, bakarrik ondo egongo da. Hala ere, gaur ez da eguna arreta horretara bideratzeko. Gaur urgenteak lehentasunezkoa atzean utzi du.

Mugikorra itzali du eserlekuaren azpian utzi aurretik. Orduantxe piztu zaio beldurra, orduantxe kontzientzia. Argi du gaur hori dela bere egitekoa. Gainera, ezin dio taldeari huts egin. Maite dugunagatik borrokatzeak merezi omen du; maite ditugunekin borrokatzea. Hori diote kanteak, epikak. “Maitasuna egin maite dugunekin”, abesten zuen talde nafarrak. Berriz ere, Gorka.

Adostutako arropa zabor-poltsa beltzean, besterik ez du hartu. Kotxeko giltza gurgil gainean ezkutatuta utzi du; azken hori ez da berria berarentzat. Baserrian inork ez du kotxeko giltza etxera sartzen, badaezpada, traktorea ateratzeko kotxea mugitu behar delako sarritan. Pauso sendoz abiatu da hitzartutako tokira. Urduri dagoela sentitu du berriz ere, baina beldurrik ez du. Beldurrik gabeko urduritasunak gorputzean utzitako arrastoa ederra dela pentsatuz egin ditu azken metroak. *Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten.*

BI:

GAUR EZ DU LANIK EGIN; horrela erabaki zuen taldearekin konpromisoa hartu zuen egunean. Horretarako aukera ere badu. Pribilegiatua dela pentsatu du ordubete luzez, mahaian eserita eta liburua eskutan gosalduta duen bitartean. *Akabo*, Laura Mintegiren azkena.

Mendirako oinetakoak eta arropa jantzi eta binaka jaitsi ditu etxeko eskailerak. Atarian Argi, auzokoa gurutzatu du, ospitaleko gaueko txandatik bueltan. Beti pentsatu izan du erakargarri

zaiola emakume hori. Gaur nekatuegi ikusi du. Ospitaleetan erizainen lan-baldintzak gero eta okerragoak dira. Hori azaldu dio Argik neke-aurpegia zuritzeko. Zerbitzu publikoak gainbeheran. Pauso sendoz atera da herrigunetik; arnasari erreparatu gabe igo du Amasarako aldapa. Pozik sentitu da herrigunea atzean utzi eta mendi-bideetan sartu denean. Pribilegiatua, beste behin. Egunak aspaldi argitu badu ere, goiz gorriaren arrastoak nabari dira oraindik zeruan. *Naturaren edertasunak ez du parekorik*. Behinola amorantearekin izandako elkarriketa oroitu du, itsasoaren aurrean izandako elkarriketan agertu baitzen ideia hura. *Naturaren edertasunak ez du parekorik*, gizakiak egindakoak ezin izango du sekula naturaren edertasuna erdietsi. Berriz ere sentitu du gaurkoak merezi izango duela. Gaurkoek merezi dute. Hobe esanda, biharkoek. Edo, naturaren edertasunak. Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek edertasunarekin amaitu ez dezaten.

HIRU:

BURUAN MARRAZTU ZITUEN aukera guztien artean, eguna horrela hastea izan zen pentsatu gabeko bakarra. Alaba gaixorik, sukarrarekin. Zer egin? Oraindik pijama erantzi eta arropa jantzi gabe, telefonoa eskuan hartu du eta agendari errepasoa egin dio. Ez du beste aukerarik.

—Egun on, polita. Barkatu hain goiz deitzea baina, alaba sukarrarekin daukat eta ez dakit zer egin. Zelan duzu eguna?

—Eguna? Zure alabarentzat erreserbatuta. Esadazu non eta hogeit hamar minututan hantxe egongo naiz.

Lasaitu ederra hartu du, eta zorioneko sentitu da lagunaren babesagatik, beste behin ere. Emakume-taldean ezagutu zuen Matilde. Behar izan duenean ondoan izan du beti, apal, elegante. Hor egon da ardo arteko elkarriketetan ere, taldearen katarsi kolektiboetan, dantza-saio askeetan...

Laguna etxean agertu denean zalantza izan du zein azalpen eman. Lanetik jarraian konpromiso bat duela esan dio, gauerdia arte ez dela etxera helduko agian, ezin duela ordu zehatzik eman... Matildek ez du ezer galdetu, lasai egoteko erantzun dio, lotan ere gera daitekeela. Hala ere, azalpenekin jarraitu du, badagoela jatekoa hozkailuan, Apiretala ohearen ondoko apalean utzi

duela, nahi beste telebista jartzeko umeak enbarazu egin ez diezaion... Lasai egoteko eskatu dio berriro ere, eta egin beharrekoak egiteko. Egin beharrekoak.

Adostutako guztia motxilan duela ziurtatu eta besarkada batez agurtu du Matilde. Behin atea itxitakoan, dardara sentitu du hanketan eta galderak erasoka buruan. Zerbait gertatuz gero, zer? Etxera bueltatzen ez bada, zer? Nork hartuko du txikiaren ardura? Begiak itxi eta yoga-klasean ikasi bezala buru-oharra idatzi du alegiazko arbelean: lasai, dena ondo joango da.

Lanerako bidea zerura begira egin du. Oskarbi dago, argitsu, eder. Sakon hartu du arnasa, oxigenoak datorrenerako indarra emango diolakoan. Alabak zeru-argiaren ederra galduko duelako, pena sentitu du. Asteburuan kostaldera eramango du, itsasoko ortzimuga infinitua elkarrekin ikusteko gogoia dauka. Asteburua lasai eta elkarrekin bizitzeko aukera badute, behintzat. Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek zerua pribatiza ez dezaten.

LAU:

AITA AKORDUAN ZABALDU DITU BEGIAK. Ez daki ametsaren hondarra den ala esnatu berriaren lehen pentsamendua. Loatxora igo ziren azkenekoarena da irudia, aita bere motxila zatar zaharretik ugerrez betetako ur-botila ateratzen. Biak eztabaidan. Botila eta motxila berria behar zituela alabak; hori kapitalismoaren beharrak direla bueltan aita. Aitakeriak. Esnatze horiek noiz amaituko diren galdetu dio bere buruari. Aita joan zenetik, lau hilabete pasa dira. Hala ere, hor agertzen zaio goizero, amets arteko esnatzeetan.

Gaueko txanda egin du eta esnatzerako erlojuak 14:00ak markatzen ditu. Dutxa hotza hartu, luzaketa batzuk egin eta bazkaria lasai hartzeko astia du. Hobe du gutxi jan, iluntzekoak gorputza arin eta burua argi izatea eskatzen baitu. Jateko aukera izango du ostean. Izango dute.

Koadernoan hitz batzuk idatzi nahi ditu aurretik. Aita hil zenetik idazten hasi da. Hasi zaio. Gaur berak hainbeste maite zuen horregatik engaiatu nahi duela kontatu dio. Baina idazten ari dela pentsatu du aita ez zukeela sekula hori egingo. Zalantza izan du hartutako konpromisoaz. Merezi izango du? Aita zer esango luke? Koadernoan itxi du, erantzun gabeko galderak atzera egitera eramango duten beldurrez.

Apalera begiratu eta argazkia ikusi du beste behin ere. “Mendia maite duenari”. Serio aita, esaldia jasotzen zuen tontorreko postontziaren ondoan. Aita beti serio argazkietan. Hainbeste

maite zuen mendian egonda ere. Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek mendiak konkista ez ditzaten.

BATBIHIRULAU:

ADOSTUTAKO LEKU ETA ORDUAN elkartu dira, ohiko euskaldunon atzerapena, hamar minutu, alegia. Iluntasunak ez die elkarren aurpegirik argi ikusten utzi, baina besarkada estuak eman dizkiote elkarri, besteak hurbil sentitzeko beharraz. Laurak bat. Ez dute apenas hitzik gurutzatu, protokoloak horrela agintzen baitu. Doministikuak ezustean harrapatu ditu. Bota duena adina gainontzekoak, giroaren isiltasuna apurtu baitu bat-batean. Doministikuak inoiz bakarrik etortzen ez direla gogoratuta, ahoa indarrez estali du bi eskuekin. Ondoren etorri direnak hala edo nola erreprimitu ahal izan ditu eta, lasaitasunez, arnasa hartu du.

Poltsetako arropak jantzi eta soinean dutena poltsetan sartu dute; baita poltsak otearen artean ezkutatu ere. Besarkada behar izan dute berriro, bidea ibiltzen hasi aurretik. Batek hiru besarkatu du, bik lau eta lauk hiru eta bat.

Gorako bidea hartu dute, bata bestearen atzetik, ilaran. Bihotz-taupadak ere entzuten dituela pentsatu du lehenengoak; beldurrez, eskuak bularrera eraman ditu, bihotzari “lasai zaitez, polit hori, dena ondo aterako da” esanez bezala. Irribarrea du ahoan bigarrenak, indartsu sentitzen da, irrikaz gainezka, bizirik. Hirugarrenak aurrez entseatutako mantra bere golkorako errepikatu du behin eta berriz, behin eta berriz: “Pertsona gutxi batzuegan sinesten dugu, baina asko sinesten dugu sinesten dugun gutxian”. Kokeinen azken kontzertuaren irudiak etorri zaizkio. Laugarrenari malkoa irristatu zaio ezkerreko begitik behera; ez daki beldur-malkoa ala harrotasun-malkoa ote den. Baina ez du lehortu, ezpainetara heldu denean mingain puntarekin ahoratu eta zaporea hartu baizik. Bidea luzea egin zaie batzuei, motz besteei. Izerdia bota duenik ere egon da, baina laurak helmugara heldu dira.

Dena oso azkar joan da. Bakoitzak adostutako lekutik adostutakoa hartu eta adostutako tokian utzi du. Iluntasun arteko onarpen-begiradek gainontzeko guztia egin dute. Ez da zalantzetarako tarterik gelditu. Hartu, jarri, lotu, konektatu. Idatzi, letra larriz idatzi.

Adostu bezala, bueltako bidea hartu dute hiruk, aurretik laugarrenari besarkada emanda. Azkenak, besarkadaz gain, musu eman dio ezpainetan, lotsati. Bakarrik geratu denean, mingain

puntaz musuak utzitako arrastoa errepasatu du, instant batez arreta oroitzapen samur batera desbideratuz. Arin etorri zaio ardura bueltan; azken egiaztapenak egin ditu.

Ote arteko poltsak dauden tokitik bakoitzak berea hartu, arropak aldatu eta, elkarri agur esan gabe, bakoitzak bere bidea hartu du. Hilerriko atean kandatutako bizikleta hartu du batek, oinez egin dute bidea beste biek, laugarrenak ere beranduago egingo duen bezala.

Etxera heldu dira lehen hirurak, norberarenera bi, beste norbaitenera bestea. Pijama jantzi dute bik; hirugarrena, biluzik sartu da ohera. Azkenak prakak besterik ez ditu erantzi, gau labur horretan etxe izango duen furgoneta berdean sartu denean. Denei kosta zaie loak hartzea; batek ez du gau osoan egin, adostu bezala.

Eztanda gertatu denean, lautik hiruk besterik ez dute entzun. Hurbilen zegoenak begiak itxi ditu indarrez, segundoak arinago pasako direlakoan. Bigarrenak, estu besarkatu du ondoan duen alaba eta azken horren “ama, zer izan da hori?” galderari, “lasai bihotza, ez da ezer izan, egizu lo” erantzun dio. Hirugarrenak amorantearen gorputz biluzia bilatu du ohean eta laztan jolaserako gonbitea egin dio, ondokoak onartu ez badu ere. Azkenak ez du entzun, lo sakonean eroso baitago.

Ez da esnatze gozorik izan batzuentzat, bai aldiz besteentzat. Hala ere, denek ohiko kafeak, infusioak, aguakate tostadak, olo-fruta nahasketak eta Príncipe galletak gosaldutako edo prestatu dituzte. Batzuek pijamak erantzi, duxtak hartu eta denek, arropa garbiak jantzi dituzte. Lanerako bideak hartu ere bai, bik, aurretik, eskola-atarian alaba edo ilobak utzita. Ordenagailu aurreko lanean jarri dira batzuk, lankideekin solasaldi laburrak izan dituzte besteek, ikasleen aurrean “egun on”, baten batek.

Goizeko uneren batean denek jaso dute mezua sakelakoan, egunkari digitaleko linka: “Mozolo Komandoak aldarrikatu du haize-errotetan gertatutako eztanda”. Albistearen zabaldu eta arreta handiz irakurri dituzte kazetariak idatzitakoak: eztandak larri kaltetu dituela estreinatzearen zeuden puntako haize-errotak, ez dela zauriturik egon, poliziak ikerketa abiatu duela, goizaldeko 03:55ean heldu dela komunikatua Mozolo Komandoak sinatuta, “lurra maite duten euskal herritarrek ekozidien kontra sendo erantzutera” deitu dituztela... Albistearen osorik irakurritakoan, mugikorra gorde eta eginbeharrekin jarraitu dute laurak; lanean daudenaren plantak egin behintzat.

Handik urte batzuetara, herriko plazan, garagardoak, ardo zuriak eta rooibos infusioak mahaian, barre-algara egingo dute elkarrekin, baten lankideak “Mozolo Komandoa” ekintza armatu serio baterako izen komikoegia zelan esan zuela gogoratzean. Orain bik amorante duten lankide berak.

HAUSNARREAN III:

ZER DA LURRA MAITATZEA? Zer Hizkuntza maitatzea? Nola maitatzen da Herria? Eta Aberria? Zer maite dugu, aurreko horiek maite ditugula esaten dugunean? Maita daiteke pertsona bat ez den beste zerbait? Zer maite du, adibidez, Jainkoa maite duenak? Zer dute berdin eta zer ezberdin konpromiso politikoak eta erlijiosoak? Zerk mugitzen du konpromiso kolektibo batean engaiatzen dena? Maitasunak? Taldetasunak? Betebeharrak, agian? Inertziak? Maitasuna bada, zerekiko, talde bat, lur zati bat, bizipen bat, sentipen bat? Bizipen konpartitu bat, agian? Maita dezakegu zentzumenen bidez hauteman ezin duguna? Hitzen bitartez deskribatu ezin duguna? Argudioekin defendatu ezin duguna? Maitasun hori toxikoa izan daiteke ala ez? Gure herriarekin, paisaiarekin, hizkuntzarekin, idealarekin... maitemin gaitezke? Amai daitezke maitasun-harreman horiek? Nork uzten du nor kasu horretan? Non sinatzen dira dibortzio-paperak Herriarekin, Hizkuntzarekin, Lurrarekin?

Lagun batek esan zidan behin, maitasunaren formarik gorenena, sekula erdietsiko ez dugun utopiarekiko maitasuna dela. Hitzez mugatu ezin duguna eta aldi berean hitzez bakarrik azal dezakegunarekiko maitasuna. Hezur-haragizkoa ez denarekiko maitasuna.

Horrela balitz, Fermin Muguruzaren kontzertuak maitasun istorio epikoen kontaketa dantzagarria izango lirateke. Hegoafrika, Kurdistan, Irun, Nikaragua, Lemoiz edo norberaren auzoa. Apartheida, euskara, nuklearren kontrako aldarria, herrien autodeterminazioa edo eolikorik gabeko mendiak. Munduko milaka tokitan, historiaren milaka unetan, milaka pertsona *iraultza txikien akanpadetan* maitasun jolasetan eta solasetan korapilaturik. Pankartak, institutuetao geletan mahai azpitik elkarri pasatutako maitasun oharrak.

Oroimenean dut ez dakit zein urtetako, ez dakit zein herritako Gazte Topagunean, ez dakit zein euskal artista misterioetsuren ahotsa bozgorailuetan, oraindik ezagutu ez dugun Herri aske baten inguruan hitz ederrak harilkatzen. Gu guztiok, bertan bilduta geunden milaka gazteok, isil-isilik, adi. Begiak dir-dir. Mozolo-aurpegiaz.